



BALIOESPENA

**EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOKO
HEZKUNTZA LEGE
PROIEKTUA**

2023ko apirila

www.savethechildren.eus



Save the Children

2023ko apirilaren 25ean Gobernu Kontseiluak **Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Lege Proiektua** onartu ondoren, **Save the Childrenek balioespen positiboa egin du lehen zirriborroarekiko egin diren aurrerapenei dagokienez, eta geure egiten ditugu lege-proiektuan ekitateari eta inklusioari lotuta ageri diren helburuak. Dena den, uste dugu gaur egungo testuak oraindik ere ez dituela nahikoa neurri zehazten, 2022ko apirilean onartu zen “**Euskadiko hezkuntzaren eraldaketarako oinarriren akordioa**” betetzen dela bermatu ahal izateko; eta, Save the Childrenen ustez, akordio hori izan behar du oinarrian legeak.**

Oso positibotzat jotzen dugu, Euskadiko eskola-segregazioaren eta ekitaterik ezaren arazoari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak egin duen jauzia, arazoa ukatzetik politikoki onartzera pasatu baita; eta horixe ikusten da testu arauemaile honetan ere. Lehen zirriborro hartatik, hainbat gai txertatu dira, ikusten dugu hori; esate baterako, plazaren erreserba, zaugarritasun-indizea, tokiko eskolatzebulegoak sortzeko aukera, gaitzeskaintzarik gabeko plangintza, kuoten publikitatea edo doakotasuna kontrolatzeko administrazio-unitatea.

Era berean, 2023-2024 ikasturteko matrikulazio-prozesuan abian jarri ditu sailak, segregazioa murriztu ahal izateko, zaugarritasun-indizea eta egoera ahulean dauden ikasleentzako plaza-erreserba, eta pozgarria iruditzen zaigu. Ekarriko dituen ondorioen zain gauden bitartean, neurriak hartzea bera aurrerapen bat da, nahiz eta behar-beharrezkoa izango den ikastetxe batzuek erakutsi duten erantzunkidetasuna.

Hala ere, **Save the Childrenen uste dugu gaur egungo lege-proiektuaren printzipio eta asmo horiekin batera ez dela ezarri neurri zehatzik horiek gauzatu daitezkeen eta legea itunaren mailara irits dadin hainbat arlotan, hala nola kontzertuen erregimenean, baliabideen esleipenean edo segregaziorik gabeko onarpenean.**

Lege-proiektua oso zehatza da zenbait arlotan (esate baterako, programa-kontratuek izan behar dituzten atalak zehazterakoan, edo ikastetxeetarako kalitate-zigilu bat sortzeari begira), **baina ez da batere zehatza, eta nahasgarria da akordioan funtsezkoak diren beste atal batzuetan** (Gizarte Intereseko Itunei eta Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoari dagokienez, esaterako, edo baliabideak beharren arabera banatzeari edota onarpeneko banaketa-neurriei dagokienez). Are gehiago, eman diren zenbait pausok anbiguotasun handia ekarri dute; esaterako “egoera ahulean dauden ikasleentzako laguntza zerbitzu eta jarduera osagarrietarako” zioen tokian, “ikasleak bete-betean sartzeko neurriez” dihardu orain. Egiaz, zaugarritasun-indizea txertatzeko orduan aurrera egin bada, zehatzagoa izan behar zuen gainerako alderdietan ere. Esate baterako, estatuko Lege Organikoak eskolatzeko inklusiboaren arloan eskaintzen dituen tresnen multzoa jaso zezakeen (ratioaren hedapenak eta murrizketak, onarpen-baremorako irizpideak, atxikitzeak, matrikula biziaren banaketa orekatua).

Save the Childrenen, kezkatuta gaude, legeak ez duelako zehazten itunpeko zer ikastetxe izan daitezkeen “gizarte-interesekoak” eta, beraz, zein izango diren Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoko parte, Hezkuntzako Itunak agintzen duenaren ildotik. Ez du zehazten zer baldintza bete behar dituzten (Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak berak adierazten duenaren ildotik), ez eta zer trantsizio-epe duten betekizun horiek betetzeko ere. Badirudi, gaur egungo idazketaren arabera, automatikoki sartzen direla Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoan, eta, beraz, ez du egungo egoera hobetzen, eta Kataluniako Hezkuntza Legean jasotzen ziren formulazioen antzekoak errepikatzen ditu, gai honetan oso eraginkorrak izan ez diren arren.

Legea ezin da izan Legebiltzarreko Itunean jasotakoa baino zehaztasun gutxiagokoa, eta ezin du guztia araudiaren gain utzi; ezin du horretara mugatu. Dekretuak eta aginduak aldatu daitezke unean uneko gobernuaren borondatearen arabera; legeek iraun egiten dute. Irauteko xedea duen lege batek balioa izan behar du askotariko testuinguruetan eta gobernuetan; baina adostasun politiko bat bildu duten lehentasun politikoak ere islatu eta garatu behar ditu; eta horiexek biltzen ditu, hain zuzen, 2022ko apirileko Legebiltzarraren Itunak. Arautze horretan askoz ere zehatzagoa izateko eskumenak ditu bere gain Eusko Jaurlaritzak, autogobernuaren bidez.

Tresnen eta administrazioari zuzendutako aginduen esparru argi, koherente eta sendo bat finkatuko duen testu bat behar dugu. Save the Childrenen ustez, lege honek 2022ko apirileko Hezkuntza Itun historikoa izan behar du oinarri; Eusko Legebiltzarraren % 91ren babesaren izan zuen, hain zuzen, itunak, eta funtsezko ardatzetako bat eskola-segregazioaren aurkako borroka du. **Legebiltzarreko alderdi guztiei legea izapidetzerakoan ahalegin handiagoa egiteko eskatu nahi diegu, itunaren maila lortu dezan legeak ere.**

Zeren falta sumatzen dugu Hezkuntza Lege Proiektuan?

- 1. Itunpeko ikastetxeak gizarte-interesekotzat hartzeko eta Euskadiko Hezkuntza Zerbitzu Publikoan sartzeko baldintza zehatz eta egiaztagarriak definitzea, eta trantsiziorako epe bat ezartzea, une honetan itunpekoak diren ikastetxeak sistema horretan sartzeko; bide horrek ez du automatikoa izan behar, betebeharrak pixkana betetzeak baldintzatuta egitekoa baizik.**
- 2. Hezkuntza-komplexutasunaren indizea (HKI) ikastetxeei baliabideak bereizita esleitzeko bideekin lotzea, behar sozialen arabera, Lege Organikoak eta Legebiltzarraren Itunak zehazten dutenaren ildotik; eta, aldi berean, kompleksutasun handiko ikastetxeen egoera hobetzeko eta zuzentzeko proiektu integraletarako programa-kontratuekin lotzea.**
- 3. Ados gaude Euskadiko Hezkuntza Zerbitzu Publikokoak diren itunpeko ikastetxeek programa-kontratu eskuratzearekin, baina ez da argi azaldu oraindik programa-kontratuan datzan tresna hori desorekak konpentsatzeko eta hezkuntza hobetzeko aparteko baliabideak esleitzera bideratu behar dela, Katalunian, Asturiasen edo Galizian egiten den bezala.**
- 4. Zaurgarritasun sozioekonomikoko egoeran dauden ikasleen definizio eguneratu eta gardena txertatzea, eskolatzeko-prozesuei eta baliabideen esleipenari begira horiek errazago identifikatu ahala izateko.**
- 5. Irakas-Sistemaren Ebaluazio, Ikerketa eta Prospektibarako Euskal Erakunderen (ISEI-IVEI) zereginen artean, lurralde bakoitzeko egoerari buruzko datuak biltzea, emaitzei, ekitateari, segregazioari, kontzentrazioari eta baliabideei dagokienez, eta ekitate eta inklusiorako behatokia osatzea.**
- 6. Nahitazeko agindu bat ezartzea, sailak eskolatzeko-bulegoak sortu ditzan, udalaren inplikazioa borondatezkoa izan arren. Ez dugu uste udalen inplikazioak espazioak lagatzera mugatu behar duenik, harago joan daitezke.**
- 7. Funtz publikoekin sostengatutako ikastetxeen benetako doakotasuna eta irabazirik eza kontrolatzea harago joan behar du, barnean hartuta zerbitzu eta kuoten onarpenak aurretiazkoa izan behar duela, gehienezko prezioak finkatzea eta benetako kostura egokitzea.**
- 8. Itunean aurreikusten den bezala, egoera ahulean dauden ikasleek jarduera eta zerbitzu osagarriak eskueran dituztela ziurtatzeko laguntzak berriro txertatzea, kendu egin baitira, eta horien ordez, "ikasleak bete-betean txertatzeko neurri" anbiguo batzuk aipatzen baititu.**
- 9. Eskaintzaren plangintza deszentralizatzea, ikastetxe eta eragile guztien erantzunkidetasuna sustatzeko, eskualde edo barrutietan Plangintza Batzordeak sortuz horretarako.**
- 10. Gizarte-erakundeak eta gizarte eta hezkuntzakoak, komunitateko eragileak eta hirugarren sektorekoak sarraraztea bai Euskadiko Eskola Kontseiluan eta bai udalerriko eskola-kontseiluetan, hezkuntza-erantzunkidetasunaren, inguruko hezkuntza-proiektu komunitario eta integralen eta hezkuntza formalaren eta ez-formalaren arteko harreman estuago baten aldeko apustuarekin bat eginez.**



www.savethechildren.eus